



CONSTRUCCIONES Y AUXILIAR DE FERROCARRILES SA (CAF)

Ohiko Batzar Nagusirako deialdia

Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles SA ("CAF" edo "Sozietatea") enpresako Administrazio Kontseiluak adostutakoaren arabera, akziodun jaun-andreei Ohiko Batzar Nagusira dei egiten zaie. Aipatutako Batzarra egoitza sozialean, Beasainen (Gipuzkoa), egingo da 2020ko ekainaren 13an, 12:00etan lehen deialdian eta, dagokionean, hurrengo egunean, toki eta ordu berean, bigarren deialdian. Batzarraren helburua jarraian zehaztuko ditugun gaien inguruan hausnarketa egitea eta erabakiak hartzea izango da:

GAI ZERRENDA

Lehenengoa: Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, SAre 2020ko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak eta kudeaketa-txostena, sozietateen talde bateratuko urteko kontuak eta kudeaketa-txostena, eta Administrazio Kontseiluaren kudeaketa-txostena aztertzea eta, dagokionean, onartzea.

Bigarrena: 2019ko ekitaldiari dagozkion finantza arlokoa ez den informazioaren egoera bateratua onartzea.

Hirugarrena: 2019ko ekitaldiari dagozkion emaitza aplikatzeko proposamena onartzea; hau da, akzio bakoitzeko 0,842 euroko zenbateko gordinarekin dibidenduak banatzea.

Laugarrena: 2021, 2022 eta 2023 ekitaldietarako kontu-auditoreak izendatzea.

Bosgarrena: kontseilariak berriro hautatzea, izendatzea eta kopurua zehaztea:

5.1 Idoia Zenarrutzabeitia Beldarrain andrea izendatzea aginduzko kontseilari.

5.2. Carmen Allo Pérez andrea berriz izendatzea kontseilari independente.

5.3. Marta Baztarrika Lizarbe andrea berriz izendatzea kontseilari exekutibo.

5.4. Manuel Domínguez de la Maza jauna aginduzko kontseilari izendatzea.

5.5. Batzar Nagusirako proposatutako izendapenak eta berraukeraketak 5.1etik 5.4ra bitartean jasotako puntu gisa onartuko balira (bi puntuak barne), kontseilari kopurua hamaika (11) kidetan finkatzea.

Seigarrena: Sozietateko Administrazio Kontseiluari baimena ematea akzioetatik eratorritako erosketa egiteko Kapital Sozietateen Legeko 146. eta 509. artikuluek ezarritako muga eta esakizunen arabera.

Zazpigarrena: Kontseilarien Ordainketen Politika, 2021, 2022 eta 2023ko ekitaldietan aplikagarria dena, onartzea.

Zortzigarrena: 2019ko ekitaldiari dagokion kontseilarien ordainketei buruzko urteko txostenaren gaineko kontsultarako bozketa.

Bederatzigarrena: Administrazio Kontseiluari eskumenak eskuordetzea aurreko akordioak formalizatzeko eta exekutatzeko.

Hamargarrena: Bilerako akta irakurtzea eta onartzea, egoki bada.

Informazio-eskubidea

Akziodun jaun-andreek informazioa jasotzeko eskubidea erabili ahal izango dute Batzarraren deialdia egiten den datatik hasita Kapitaleko Sozietateen Legeko 197. eta 520. artikuluetan aurrez ikusitako baldintzen arabera.

Kapital Sozietateen Legearen eta 272. artikuluan eta bat datozenetan xedatutakoaren arabera, deialdi-iragarpen honen argitalpenetik abiatuta, akziodunek eskubidea dute berehala eta doan, helbide sozialean, Akziodunen Batzar Nagusiaren mende jarri behar den dokumentazio hau eskuratzeko eta aztertzeko, edo bidal diezaiotela eskatzeko (943.18.92.62 telefono-zenbakiaren bidez edo posta elektronikoa honetan: accionistas@caf.net).

Gai-zerrendako lehen, bigarren eta hirugarren puntuei dagokienez: 2019ko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak (balantzea, galdu-irabazien kontua, ekitaldiaren ondare garbian izandako aldaketak islatzen dituen egoera, efektibo fluxuen egoera eta memoria), Sozietatearen emaitzen aplikazio-proposamena, kudeaketa-txostena eta kontu-auditoreen txostena. CAF Taldearen kontu bateratuei dagokienez, haren dokumentuak, Taldearen kudeaketa-txostena, finantza arlokoa ez den informazio-egoera bateratua jasotzen duena, eta auditoriaren txostena ere eskuratu ahal izango dituzte Taldeko sozietateetako akziodunek.

Aurreko dokumentu guztiak, eta Akziodunen Batzar Nagusiari dagokion gainerako informazioa, Sozietatearen webgunean ere kontsulta daiteke (www.caf.net), osorik eta etenik gabe Batzar Nagusia egin arte eta, zehatzago honako hauek:

- Deialdi-iragarpen hau.
- Gai-zerrendako puntu bakoitzarekin lotuta Akziodunen Batzar Nagusiaren onarpena jasotzeko aurkeztuko diren akordio-proposamenen testu osoa.
- Gai-zerrendako bosgarren puntuari dagokionez: Izendapenen eta Ordainsarien Batzordearen eta, dagokionean, Administrazio Kontseiluaren berraukeraketako eta izendapeneko proposamenak, eta Izendapenen eta Ordainsarien Batzordearen eta Administrazio Kontseiluaren (dagokionaren arabera) justifikazio-txostenak. Horiek biltzen dute Akziodunen Batzar Nagusian izendapena eta berriz aukeratzea proposatuko den kontseilariaren informazioa, haren izen-abizenak, Curriculum Vitae eta kategoria (kasu bakoitzean proposatutako hautagaiaren gaitasuna, esperientzia eta merezimenduak baloratzen dituzte).
- Gai-zerrendako zazpigarren puntuari dagokionez: Izendapenen eta Ordainsarien Batzordearen txostena eta kontseilarien ordainsarien politikarekin lotutako

Administrazio Kontseiluaren proposamen arrazoitua, 2021eko , 2022ko eta 2023ko ekitaldietarako aplikagarria.

- Gai-zerrendako zortzigarren puntuarekin lotuta: 2019ko ekitaldiari dagokion kontseilarien ordainsarien inguruko urteko txostena. Kontsultarako bozketa egin da horren inguruan.
- Deialdiaren datan bozketarako eskubide eta akzio kopuru osoari buruzko informazioa.
- 2019ko ekitaldiari dagokion Gobernu Korporatiboaren Urteko Txostena.
- 2019ko ekitaldiari dagokion Auditorearen Independentziaren Txostena.
- 2019ko ekitaldiari dagokion Erantzukizun Sozial Korporatiboaren Txostena.
- 2019ko ekitaldiari dagozkion Administrazio Kontseiluaren Batzordeen Funtzionamenduko Txostenak.
- Asistentzia fisikorako txartel-eredua, botoa eskuordetzeko formularioa eta botoa urrunetik emateko formularioa.

Batzar Nagusia egiteko aurrez ikusitako aurreko bosgarren egunera arte, akziodunek beharrezko iruditutako informazioak edo argibideak eska ditzakete gai-zerrendan jasotako gaien inguruan, edo idatziz egin ditzakete egoki iruditutako galderak. Horrez gain, akziodunek administratzaileei idatziz eta epe beraren barruan edo Batzarra egin bitartean ahoz (edo, asistentzia telematikoaren kasuan, geroxeago zehaztuko dugun moduan) eskatu ahal izango dizkiete azken batzar nagusia egin zenetik Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari Sozietateak emandako eta publikoaren eskura dagoen informazioari buruz eta auditorearen txostenari buruz egoki irizitako argibideak. Horri dagokionez, informazio-eskaerak Akziodunen eta Inbertsiogileen Arretarako Bulegora bidali beharko dira, helbide sozialean, fax bidez (943.18.92.26 zenbakira), edo posta elektronikoz, helbide honetara: accionistas@caf.net.

Akziodunaren identifikazio-berme egokiak zaintzeko, informazio-eskaeran izen-abizenak adierazi beharko ditu, eta akziodun dela egiaztatzen duten dokumentuen kopia erantsi beharko du. Pertsona juridikoa izanez gero, akziodunaren ordezkari gisa, informazio-eskubidea erabiltzen ari den pertsona fisikoaren ordezkari-tza-gaitasunak ziurtatzen dituen dokumentuen kopia ere gehitu beharko da.

Batzar Nagusira joateko eskubidea

COVID-19ak eragindako inpaktu ekonomikoari eta sozialari aurre egiteko aparteko presazko neurriak biltzen dituen 2020ko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuko 41.1.c) artikulua eta harekin bat datozen gainerako artikuluek xedatutakoa betez, Administrazio Kontseiluak Batzarrerako asistentzia batzarra egingo den tokiarekin denbora errealean konexioa egitea ahalbidetuko luketen bitarteko telematikoak erabilta ere egin ahal izatea adostu du. Ondorioz, asistentzia fisikoaren bidez ez ezik, akziodunek, zuzenean edo ordezkari baten bidez, deialdi honetan aurrez ikusitako baldintzen arabera ere joan ahal izango dute batzarrera bide telematikotik.

Batzarrera joateko eskubidea erabiltzearekin lotuta (presentziala edo telematikoa izanda ere), akziodun jaun-andreei gogorarazten zaie gutxienez mila (1.000) akzioen jabetza (Legeak eskatzen duen moduan) egiaztatzen dutenek soilik izango dutela bertara joateko

eskubidea Estatutu Sozialetako 7. eta 21. artikuluek xedatutakoa betez. Kopuru txikiagoa duten akziodunek taldean elkartuta edo mila (1.000) akzio edo akzio gehiago biltzen dituen beste akziodun baten alde eman dezakete haien ordezkariak.

A. Batzarrerako asistentzia fisikoa

Batzarrera modu fisikoan joan ahal izateko, Sozietateak beren esku akziodunei jarritako asistentzia-txartela edo beren akzioak gordailututa dituen erakundeak (dagokionean) igorritakoa eraman beharko dute akziodunek. Sociedad de Gestión de los Sistemas de Registro, Compensación y Liquidación de Valores SA Unipersonal (IBERCLEAR) enpresako partaide den erakunderen batek igorritako ziurtagiria ere erabili ahal izango da.

Sozietateak akziodunen esku jarritako asistentzia fisikorako txartelak jasotzen ditu aplikagarriak diren erabilera-jarraibideak eta -arauak eta, deialdi hau argitaratzen den unetik, webgune korporatiboan (www.caf.net) egongo da etenik gabe argitaratuta Batzar Nagusira joateko eskubidea arautzen duten gainerako arau eta legeak bezalaxe.

B. Batzarrera modu telematikoa joatea

(i) Erregistroa, konexioa eta asistentzia

Asistentzia telematikoko sistemen kudeaketa egokia ahalbidetzeko, Batzarrera joateko eskubidea duen eta joan nahi duen akziodunak helburu horretarako Sozietatearen webgunean gaitutako plataforma informatikoan (www.caf.net) erregistratu beharko du. Bertan, bitarteko hauetakoren baten bidez, bere nortasuna egiaztatu beharko du: (i) Nortasun Agiri Nazional elektronikoa; (ii) Sinadura Elektronikoaren 59/2003 Legeak aurrez ikusitakoaren arabera erabiltzailearen ziurtagiri elektronikoa, indarrean dagoena eta baliozkoa dena, eta Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionalaren mende dagoen Ziurtagirien Espainiako Agintaritzaren Publikoak (CERES) igorritakoa; edo (iii) akziodunak posta elektronikoko helbidean (accionistas@caf.net), gaian “2020ko Batzar Nagusirako kredentzialak eskatzea” jarrita eskatu beharko dituen erabiltzailearen/gakoaren kredentzialak.

Modu telematikoa joango den pertsonak bere alde eskuordetzeak balitu edo pertsona juridiko baten ordezkaria balitz, erabiltzailearen/gakoaren kredentzialak aurreko paragrafoko (iii) puntuan zehaztutako prozeduraren arabera eskatu beharko ditu.

Asistentzia-erregistroa deialdi hau argitaratzen den hurrengo egunetik aurrera egin ahal izango da eta ez dira onartuko 2020ko ekainaren 12ko 12:00etatik aurrera.

Batzar Nagusira modu telematikoa joateko izena eman duen akziodunak (edo haren ordezkariak (www.caf.net) webgunean konektatu beharko du 2020ko ekainaren 13ko 11:30 eta 12:00 artean, eta bere burua identifikatu Sozietateko webgunean helburu horretarako gaitutako plataforma informatikoan. Batzarra lehen deialdian egin ezingo balitz, hurrengo egunean, ordutegi-tarte berean, konektatu beharko du batzarra bigarren deialdian egiteko. Modu telematikoa joandako akziodunak bertaratu gisa hartuko dira kontuan Batzarra eratzeko helburuetarako. Aldiz, modu telematikoa bertaratzeko aipatutako data eta ordua baino geroago konektatzen diren akziodunak ez dira Batzar Nagusirako elkartutakoen artean hartuko, baina batzarraren garapenari zuzenean jarraitu ahal izango diote webgune korporatibotik.

Atal honetan aurrez ikusitako helburuetarako, Sozietateak erreserbatuta izango du akziodunei edo haien ordezkariak akziodun edo ordezkari izaera egiaztatzeko eta botoaren edo eskuordetzearen benetakotasuna bermatzeko beharrezkoak eta egokiak diren beste identifikazio-bitarteko batzuk eskatzeko eskubidea.

(ii) Esku-hartzea

Aurreko (i) atalean aipatu dugun erregistro-ekintza berean eta 2020ko ekainaren 12ko 12:00ak arte, akziodunak (edo haren ordezkariak) idatziz bidali ahal izango ditu egin nahi dituen galderak edo esku-hartzeak. Galderak, azalpenak edo esku-hartzeak Batzar Nagusiko Araudiak eta Legeak xedatutakoaren mende egongo dira. Ez dira kontuan hartuko erregistratutako akziodunek edo ordezkariak modu telematikoan bertaratutako gisa erregistratzeko garaian egindako galderak eta esku-hartzeak, deialdi honetan aurrez ikusitakoaren arabera batzarreko egunean konektatzen ez badira.

Batzar Nagusira modu telematikoan joandako akziodunek edo ordezkariak, gainera, bertaratutako zerrendako edukiaren edo Batzar Nagusia eratzeko eskakizunak betetzearekin lotuta egokitzen jotzen dituzten erreparatuak idatziz jaso ahal izango dituzte helbide honetara mezu elektronikoa bidalita: accionistas@caf.net.

(iii) Bozketa.

Gai-zerrendan jasotako puntuekin lotutako proposamenari buruzko botoa modu telematikoan emateko garaian, Batzar Nagusiaren Araudiko 16. artikulua xedatutakoa hartu beharko da kontuan eta Sozietateko webgunean helburu horrekin egokituko duten plataforma informatikoa erabili beharko da.

Era berean, Legeak xedatutakoaren arabera gai-zerrendan jasota izatea beharrezkoa ez den gai buruzko akordio-proposamenen kasuan, modu telematiko bidez agertutakoek Batzar Nagusiaren Araudiko 16. artikulua ezarritakoaren arabera emango dute beren botoa Batzar Nagusiko idazkariak bozketa egiten hasteko proposamen horiek irakurtzen dituen unetik aurrera.

(iv) Beste gai batzuk

Sozietatea ez da izango batzarrerako asistentzia telematiko mekanismoak erabiltzea eragotz dezaketen eta Sozietatearen borondatezkoak ez diren matxuretatik, gainkargetatik, linea-erorketetatik, konexio-akatsetatik edo antzekoa edo berdina den beste edozein gertakizunetatik eratorri den eta akziodunak jasan ditzakeen kalteen arduraduna izango.

Ordezkatzeko eta urruneko botoa emateko eskubidea

Batzarera modu fisikoan edo telematikoan joan ezin duten edo hala nahi duten akziodunek urruneko botoa eman ahal izango dute edo beste norbaitek ordezkatu ahal izango ditu nahiz eta hura ez izan akzioduna honako hauetan ezarritako baldintzen arabera: Kapital Sozietateen Legea, Estatutu Sozialetako 21, 22 eta 22 bis artikulua, Akziodunen Batzar Nagusiaren araudiko 9, 9 bis eta 12 artikulua, eta Sozietateak argitaratutako urruneko botoa emateko edo botoa eskuordetzeko formularioa. Zehatzago esanda, urruneko botoa eta botoaren eskuordetzea posta arruntez, posta elektronikoz edo Sozietatearen webgunean (www.caf.net) helburu horretarako gaitutako plataforma informatikoaren bidez egin daiteke.

Balioa izan dezan, arau orokor gisa, aurreko atalaren arabera igorritako botoaren eskuordetzea edo urruneko botoa Batzar Nagusia lehen deialdia egiteko aurrez ikusitako data eta ordua baino gutxienez hogeita lau (24) ordu lehenago jaso beharko ditu Sozietateak.

Beren botoa urrunetik emandako akziodunak bertaratu gisa hartuko dira kontuan Batzarra eratzeko helburuetarako.

Akziodunaren Batzar Nagusirako asistentzia fisikoak edo telematikoak edozein bitartekotatik aldeztu aurretik emandako botoa eta ordezkari-tza baliogabetzeko balioa izango du.

A) Posta arruntez edo posta elektronikoz urruneko botoa ematea eta botoa eskuordetzea

Posta arruntez edo posta elektronikoz bidez urruneko botoa edo boto-eskuordetzea egin nahi duten akziodunek Sozietateak haien esku jarritako formularioa dagokion atalean behar bezala bete beharko die posta arruntez edo posta elektronikoz bertan jasotako jarraibideen arabera.

Era berean, akzioak gordailututa dituen erakundeak edo Sociedad de Gestión de los Sistemas de Registro, Compensación y Liquidación de Valores SA Unipersonal (IBERCLEAR) Sozietatean partaide diren erakundeetakoren batek igorritako urruneko botoa emateko edo botoa eskuordetzeko formularioak ere erabili ahal izango dira. Formularioak posta arruntez bidaltzean, posta ziurtatua erabili beharko da jasotze-agiriarekin, eta formularioarekin batera argitaratutako argibideen arabera behar bezala bete beharko dira.

Sozietateak akziodunen esku jarritako boto-eskuordetzearen eta urruneko botoa ematearen formularioa, deialdi hau argitaratzen den unetik, webgune korporatiboan (www.caf.net) egongo dira etenik gabe argitaratuta Batzar Nagusiko ordezkari-tza eskubidea eta urruneko partaidetza arautzen dituzten gainerako arau eta legeak bezalaxe.

B) Eskuordetzea eta urruneko botoa plataformaren bidez

Era berean, Akziodunen Batzar Nagusia egin aurretik beren ordezkari-tza edo botoa eman nahi duten akziodunek (www.caf.net) webgunean sartu eta hala egin ahal izango dute deialdi hau argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita Sozietateak helburu horietarako egokitu duen plataformaren bidez. Horretarako, haien nortasuna egiaztatu beharko dute bitarteko hauen bidez: (i) Nortasun Agiri Nazional elektronikoa; (ii) Sinadura Elektronikoaren 59/2003 Legeak aurrez ikusitakoaren arabera erabiltzailearen ziurtagiri elektronikoa, indarrean dagoena eta baliozkoa dena, eta Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionalaren mende dagoen Ziurtagirien Espainiako Agintaritzaren Publikoak (CERES) igorritakoa; edo (iii) akziodunak posta elektronikoko helbidean (accionistas@caf.net), gaian “2020ko Batzar Nagusirako kredentzialak eskatzea” jarrita eskatu beharko dituen erabiltzailearen/gakoaren kredentzialak.

Txartelak onartzea asistentzia fisikorako eta Batzarraren egunean aurkeztutako boto-eskuordetzearako

Batzar Nagusiaren Araudiko 12. artikulua ezarritakoaren arabera, Batzarraren egunean aurkeztutako boto-eskuordetzearako eta asistentzia fisikorako txartelen onarpena

Batzar Nagusiaren bilera hasteko zehaztutako orduan itxiko da eta, une horretatik aurrera, ez dira kontuan hartuko quorum-aren eraginetarako.

Gai-zerrendan puntuak gehitzeko eta akordiorako proposamenak aurkezteko eskubidea

Gutxienez kapital sozialaren ehuneko hiru (% 3) ordezkatzan duten akziodunek Akziodunen Batzar Nagusiaren deialdiaren osagarria argitaratzeko eska dezakete. Bertan, gai-zerrendan, puntu bat edo gehiago sartzeko eska dezakete baldin eta puntu berri horiek justifikazioarekin edo, dagokionean, justifikatutako akordio-proposamenarekin aurkezten badituzte. Eskubide hori erabili ahal izateko, jakinarazpen fede-emailea erabili beharko da (Administrazio Kontseiluko Idazkaritzari zuzenduta). Aipatutako jakinarazpena deialdi hau argitaratu eta hurrengo bost (5) eguneko epearen baitan jaso beharko dute egoitza sozialean.

Deialdiaren osagarria Batzarra lehen deialdian egiteko zehaztutako data baino hamabost (15) egun lehenago argitaratuko da gutxienez.

Ehuneko hori biltzen duten akziodunek, era berean, aipatutako epe horretan eta jakinarazpena egoitza sozialera bidalita, aurretik bilduta zeuden edo deitutako Batzarreko gai-zerrendan gehitu beharko lirakeen gaiei buruzko akordiorako oinarritutako proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte.

Akziodunen gunea

Sozietatearen webgunean (www.caf.net) dago Batzar Nagusi honetarako gaituta akziodunen Gune Elektronikoa. Banakako akziodunek zein, indarrean dagoen araudiaren arabera, hura era dezaketen borondatezko elkarteek izango dute sarbidea berme egokiek, Akziodunen Batzar Nagusia egin aurretik elkarren arteko komunikazioa errazteko asmoz. Akziodunen Gune Elektronikoaren araudia akziodunentzat eskuragarri dago Sozietatearen webgunean (www.caf.net).

Informazio orokorra

- Batzarrera modu fisikoan eta telematikokoan joateko, botoa eskuordetzeko eta botoa urrunetik emateko eskubideak erabili ahal izateko, akziodunek Kontuko Idazpenen Erregistroan beren izenean harpidetuta izan beharko dituzte akzioak Batzar Nagusia egin behar den eguna baino bost (5) egun lehenago.
- Aurrez ikusitakoaren arabera, Batzarra lehen deialdian egingo da.
- Dokumentazioaren doako bidalketaren, azterketaren edo entregaren inguruko azalpenak, informazio osagarria edo deialdi honekin eta Batzar Nagusia egitearekin lotutako beste edozein gairekin lotutako edozein gairi buruzko informazioa eskuratu ahal izateko, akziodunek Akziodunaren eta Inbertsiogileen Arreta Bulegora jo ahal izango dute honako hauen bidez:
 1. Telefonoa: 943.18.92.62, lanegunetan eta laneko ordutegian.
 2. Faxe: 943.18.92.26.
 3. Posta elektronikoa: accionistas@caf.net.

2020ko Batzar Nagusirako informazio berezia

Aurretik aipatutakoari kalterik eragin gabe, 463/2020 Errege Dekretuan, 8/2020 Errege Lege Dekretuan eta 11/2020 Errege Lege Dekretuan jasotako aparteko neurriak aplikatuz, akziodunei honako hauek jakinarazi nahi zaizkie:

- **Administrazio Kontseiluaren ustez, hurrengo Batzar Nagusian akziodunek beren eskubideak modu seguruan eta erabat erabiltzea bermatzeko modurik onena botoa eskuordetuta, urruneko botoa emanda eta asistentzia telematikoaren bidez da; hau da, Batzar Nagusia garatuko den tokira modu fisikoan joan gabe.**
- Aurrekoarekin lotuta, akziodunei gogorarazi nahi zaie deialdiaren iragarki honetan zein webgune korporatiboan (www.caf.net) daudela jasota asistentzia fisikoaren alternatiba gisa Batzarrerako asistentzia-eskubidea eta boto-eskubidea erabili ahal izateko haien esku jarritako bitarteko guztiak.
- Horrez gain, hartutako neurrien ondorioz, kontseilariren batek Batzarra egingo den tokira modu fisikoan joan ezingo balu, denbora errealean modu telematikoan konektatu eta bileran urruneko komunikazio-bitartekoen bidez parte har dezan beharrezko baliabide teknikoak jarriko dira.
- Presidenteak Batzar Nagusia egin ahal izateko ezinbestekoak diren kanpoko eta barneko langile laguntzaileak bakarrik gonbidatu edo baimenduko ditu Batzar Nagusira joateko. **Ondorioz, bilera gonbidaturik gabe egingo da.** Era berean, zuhurtzia-arrazoiak direla eta, bileraren ondoren egitekoa zen koktela bertan behera uztea erabaki da.
- Edonola ere, Batzarra egingo den tokira modu fisikoan joanez gero, Sozietateak akziodunen esku jarriko ditu eskumena duten agintariek gomendatutako prebentzio arloko osasun-neurri guztiak.
- Hala eta guztiz ere, akziodunei jakinarazi nahi zaie **batzarra egiteko unea iritsitakoan, deialdi honetan ezarritako tokian batzarra egitea eragotziko luketen edo akziodunak berdintasunezko baldintzatan modu presentzialean joatearekiko bateraezinak liratekeen eta agintari publikoek egindako murrizketak edo gomendioak baleude** (pertsonen mugigarritasunarekin edo biltzeko haien gaitasunarekin lotutakoak, adibidez), **batzarra bitarteko telematikoaren bidez bakarrik egingo litzatekeela.** Hau da, akziodunen eta haien ordezkarien presentzia fisikorik eta, oro har, inoren presentzia fisikorik gabe. Salbuespena batzarra egiteko erabat ezinbestekoak diren pertsonak izango dira. Kasu horretan, **horren berri emango da iragarki osagarriaren bidez** eta hori batzarra egin baino bost egun naturaleko gutxieneko aurrerapenarekin argitaratuko da.
- Neurri horiek guztiak bateragarriak dira Sozietatearen betebeharrak betetzearekin eta akziodunen eskubide politikoak erabat bermatzen dituzte.
- Beharrezkoa balitz, Sozietateak iragarki honetan jasotako informazioa eguneratuko du eta, dagokionean, hori ere jendaurrean argitaratuko du webgune korporatiboaren (www.caf.net) bidez.

Beasainen, 2020ko maiatzaren 8an

Marta Baztarrika Lizarbe andrea
Administrazio Kontseiluko kontseilari idazkaria